

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Produktua bezeroengana helarazteko, hainbat dendatan online nahiz fisikoki eta kolaborazioak edo kanpainak egingo ditugu. Eta hasieran gure produktua ezagutzara eramateko 3.000€-ko marketin kanpaina egingo dugu, oraindikan zehaztu ez dugun enpresa batean.

Lehenbizi Solar Chip-a gure web orrian eskuratu daiteke. Bertan, produktua erosteko denda egon arren, hiru eredu(Solar Chip, Solar Chip Fit eta Solar Chip Kids) diseinua, funtzionamendua eta erabilerak ere azalduko dira. Eta oso garrantzitsua den beste atal bat egongo da, bezeroentzako arreta. Horrela, bezeroak arazo edo zalantza bat badu, gurekin kontaktuan jarri daiteke. Beste onlineko web orri batean ere salmentan egongo da; espezifikoki, gaur egun nahiko segurua eta mundu osoan ezaguna den Amazon.



Baina oraindikan internetetik erostea seguru ez dagoen bezeroentzat denda fisikoetan ere eskuragarri egongo da. Solar Chip Fit daukagunez, kirolaren munduko produktuak saltzen dituzten enpresetan salduko dugu; Decathlon eta Decimasen, adibidez. Solar Chip Kids-en kasuan umeentzako produktuak saltzen dituzten dendetan ere egongo da: Imaginarium, Juguettos eta Toys “R” us-en. Eta hiru ereduak ere Media Markt eta Worten dendetan erosi al izango dira. Baita ere, aurreko dendetan web orrietan egongo dira eskuragarri.



Solar Chipa ezagutzara eramateko ere, kanpainak edota kolaborazioak egingo ditugu. Kanpainak osasunaren aldetik egingo genituzke, DYArekin “erradiazioa dituen arriskuak eta hauek nola saihestu” kanpaina egin dezakegu Espainiako hainbat herrialdeetan edo baita ere AECC-rekin edo ospital publikoekin. Kolaborazioak eguzkitako krema saltzen duten (Nivea, Hawaiian Tropic, Babaria...) eta bainu jantzien markekin(Roxy/Quicksilver...)

